



FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Baliabide hauek negozio-eredua aurrera eramateko beharrezkoak diren jardueren multzoa da. Ondorengo hauek dira “Bubble”-enak:

- Baliabide ekonomikoak: gobernuak eta Europar Batasunak diru laguntzak eskainiko ditu, gazte ekintzaile eta kultura sustatzen duten enpresa guztiei bezala.
- Baliabide fisikoak: Ordenagailuak eta Hardware-a funtsezkoak izango dira webgune bat eramateko orduan. Honez gain, hainbat material ere beharrezkoak izango dira bulego txiki bat sortu ahal izateko; esaterako, mahia, eserlekua...
- Baliabide ukiezinak: Webgune honen ekoizpenerako ezinbestekoak dira, interneta, wifi-a eta software-a.
- Baliabide pertsonalak: Gure kasuan, baliabide pertsonalak dira garrantzitsuenak, beraiek baitira webgunearen motorra. Baliabide pertsonalen multzoa, gaian adituak diren eta aholkularitza eskaintzen duten profesionalak, webgunean parte-hartzen duten gazteek, eta webgunea bisitatzen eta bertan zerbait idatzi edota bertatik informazio hartzen duten pertsona guztiek osatzen dute.

